

# *Psikologia Medikoa*



## *Medikuntzako Ikasleen Elkartea (AEM/MIB)*

**Irakasgaieko irakasle titularra:**

*Agurtzane Miren Ortiez*

**Ikasle-egilea:**

*Miren Zubillaga Idarreta*

## **Oharra**

*Apunte buruxka hau AEM/MIB medikuntzako ikasleen elkartearen ekimena da, Medikuntza eta Odontologiako Ikasleen Kontseiluaren laguntzarekin. Liburuxka hauek azken urteetan zehar euskarazko ikasleek prestaturiko zirriborro eta idazpenenetan oinarritzen da,*

*Medikuntzako ikasleei nolabaiteko euskarri edo laguntza bat eskeintzeko helburua dute, ez inolako bibliografiarik edo irakasleen azalpenik ordezkatzekoa.*

*Pertsona nahikotxok eginakoak direnez estilo eta terminologia ezberdintasunak egon daitezke, hauek ekiditzen saiatu garen arren.*

***Adrian Hugo Llorente Aginagalde,***

***Medikuntzako Ikasleen Elkarte (AEM/MIB)***



## 1: PSIKOLOGIA:

Psikologia modu askotan defini daiteke:

**-Psikologia portaeraz ari den zientzia da,** fenomeno psikologiko guztiak barne dituena: oroimena, inteligentzia, emozioa, kontzientzia, borondatea. Baina, pentsatzen dugunaren arabera portatzen garenez, psikologiak pentsamenduaz ere diharduela esan dezakegu. Pertsonak bio-psiko-sozialak gara. Ezin dugu esan gaixo bat kardiologoarengana bihotza begiratzera soilik doanik, ez baita egia, gaixoa ez baita soilik bihotza, osotasun bat baizik. Pertsona *bio* da; hezurak dauzka, funtzio fisiologikoak ditu, ... Baina *bioz* gain *psiko* ere bada. Izan ere, antsietatea badu, horrek eragina izango du *bion* eta alderantziz, gaixotasunen bat dugunean (*bio*-aren arazo bat) *psikon* eragina izango du. Beraz, ezin dira *bio* eta *psiko* bereizi. Ezta *soziala* ere. Adibidez, alzheimerra duen pertsona bat bakarrik badago, hau da, ez badago beraz arduratzen den pertsona edo instituziorik, horrek eragina izango du *psikon* eta baita *bion* ere. Beraz, *bio*, *psiko* eta *soziala* guztiz elkarturik daude. Demagun buru-hilketa (suizidio) kasu bat. Buru-hilketaren arrisku faktore bat ezkongabea izatea da, eta hori *soziala* da eta eragina du *psikon*.

**-Psikologiak arau berezi batzuk jarraituz elkartzen diren bizi prozesu subjektiboak aztertzen ditu.** Baina arauak ez dira berdinak herrialde guztietan, gizarte maila, klima, kultura eta janaria ez diren bezala. Eta beraz, zein arau da egokiena? Normalena? Zer da normala? Psikoanalisiaren ustetan, pertsona bat normala da zoriotsua bada eta besteak zoriotsu egiteko gai bada.

**-Psikologiak buru edo arimaren ikaskuntzaz ere dihardu.** Grezian *psi* hegan dagoen zerbait da.

**-Psikologia animalia guztien portaera eta prozesu mentalak ikertzen dituen zientzia da.**

Psikologiaren definizioa aldakorra da korrante edo eskolaren arabera.

## 2: PSIKOLOGIA MEDIKOA:

**Def:** Medikuari baliagarri gerta dakizkiokeen psikologiaren jakintzak biltzen dituen psikologia aplikatua da. Mediku eta gaixoaren arteko harremanaz dihardu.

**Ikerketa objektua:** Pertsona gaixoa.

### **Helburuak:**

-Gaixotasuna nahastura biologiko-psikologiko-sozial gisa ulertzen laguntzea.

-Osasun orokorraren promozio eta gaixotasunaren prebentzioa.

### **Ikerketa metodoak:**

-**Behaketa:** Hau da medikuen metodo nagusia. Behaketaren bidez hainbat zeinu detekta ditzakegu:

- Introspeksioa: Nork bere burua aztertzea.
- Extrospeksioa: Beste bat aztertzea.
- Introieksioa: Bestearena neureganatzea.
- Esperimentazioa: Errealitatean ikusten dena laborategian berrikustea.
- Estatistika.

### **Psikologia medikoaren harremanak:**

Psikologia medikoa ez da psikiatriarako sarrera, medikuntzaren hainbat aspektu lantzen dituen psikologiaren adar bat baizik. Psikologia medikoak harreman handia du beste hainbat arloekin eta arlo horiek psikologia ornitu egiten dute: matematika, biologia, antropologia, soziologia, psikologia orokorra, psikoanalisi, fisiologia, biokimika, anatomia, psikiatria ...

## **PSIKOLOGIAREN HISTORIA:**

Hasiera batean, psikologia ez zen bere horretan existitzen, psikologia filosofiaren adar bat zen, non gizakiaren *psia* tratatzen zen. Aristotelesen garaian hasi zen psikologia zientifikorako trantsizioa. Baina, psikologia zientifikoak ez zuen bere independentzia lortu XIX. mendearen erdialdera arte; Wundt izan zen kontsolidatu zuena. Historian zehar, eskola edo korronte ezberdinak garatu dira eta bakoitzak psikologia definitzeko ikuspuntu ezberdin bat izan du. Bestalde, korrontearen arabera, prozesu berari izen ezberdina ezarri zaio. Besteak beste, hauek dira ezagutzen diren korronteak:

- Estrukturalismoa (Wundt, Titchener).
- Funtzionalismoa (James, Dewey).
- Psikoanalisi (Freud).
- Erreflexologia (Sechenov, Pavlov, Bechterev).
- Gestalt (Köhler, Wertheimer).
- Konduktismoa (Watson, Thorndike, Skinner).
- Psikologia humanistikoa (Allport, Rogers, Maslow).
- Kognitibismoa.

### **1: ESTRUKTURALISMOA = ATOMISMOA = ELEMENTALISMOA:**

Eskola edo korronte honetakoak dira:

-**Wundt**: Leipzig-eko unibertsitateko katedraduna izan zen. XIX. mendeko bigarren erdian, lehenengo laborategi esperimentalak sortu zuen Alemanian. Psikologia zientzia independente bat izatea lortu zuen, horrela, pauso bat markatu zuen Aristotelesen garaitik.

-**Titchener**: AEBtakoak.

Estrukturalismoaren helburua: Esperientzia kontzienteak zientifikoki ikastea. Kontzientziaren egitura aztertzea.

Estrukturalismoaren metodoa: Kontrolatua eta objektiboa da, introiektzioa eta esperimentazioa erabiliz burutzen dena. Ekintza mentalak eratzten duten elementuak aztertzen ditu estrukturalismoak, hau da, aparatu psikologikoen azterketa egiten du. Elementu horiek dira:

-Sentsazioa: Pertzepzioaren elementua.

-Sentimendua: Emozioaren elementua.

-Irudia: Ideiaren elementua.

Estrukturalismoaren alde negatiboak edo kritikak:

-Planteamendu eskasa du, soilik psikologia esplikatibo edo deskriptiboa egiten duelako, konprentziboa baino gehiago.

-Kontzientziaren inguruan dihardu soilik. Hau da, elementu kontzienteetan zentratzen da soilik.

-Metodo introspektiboa du, sentsazioetan oinarritutakoa.

-Atomista edo elementalista izanik, elementuetan edo zati txikietan oinarritzen da soilik, funtzioak alde batera uzten duelarik.

-Gizakian zentratzen da.

## **2: FUNTZIONALISMO AMERIKARRA:**

AEBtan korrante honek eman zion hasiera psikologiari. Hau da, funtzionalismoa psikologiaren hasiera izan zen AEBtan. Korrante honetako pertsona ezagunena **William James** izan zen.

Funtzionalismoaren ikuspuntutik, psikologia bizitza mentalaren, bere fenomenoek eta bere baldintzen zientzia bat da. Hau da, psikologia prozesu mentalen (pertzepzioa, oroimena, irudimena, inteligentzia...) ikerketa da, organismoaren ingurunearekiko moldatze instrumentu gisa hartuta.

Beraz, funtzionalismoak prozesu mentalen funtzio orokorrak aztertzen ditu elementuei garrantzia eman gabe eta esaten du, gizakia ingurunera moldatzen dela bere gorputza dela medio, aferentzia eta eferentzien bidez:

-Aferentziak: Baldintza organikoekin, sentsazioekin, ... erlazionatuta daude.

-Eferentziak: Ondorioekin, erantzunekin eta mugimenduekin erlazionaturik daude.

-Prozesu zentralak: Sentsazio-mugimendu lotura bitartekatzen dute.

Indibiduoaren moldatze horrek mundu aldakor batean portaera aldatzea dakar. Hau da, indibidua ingurunera moldatzen denez eta ingurunea aldakorra denez, ingurunea aldatzean indibiduoak ere portaera aldatu beharko du aldaketa horri moldatzeko.

Funtzionalismoaren metodoa: Edozein metodo da erabilgarria. Ikasketa eremuak esango du zein metodo erabili.

### **3: PSIKOANALISIA:**

Sigmund Freud izan zen korrante honen sortzailea. Freud neurologoa zen eta medikuntza klinikoan egin zuen lan. Bere gaixoak ulertzea lortu nahi zuen. Bere ustetan, indibiduoak inkontzienteak diren eduki mental batzuk ditu, ezkutaturik eta ez ditu kontrolatzen. Gaixotasun askoren jatorria eduki hauek direla ulerturik, inkontzientean dagoen eduki hori kontzienteratzuz gaixotasuna ulertu eta beraz, senda litekeela esaten zuen.

Kontzienteratzten hori lortzeko, hasiera batean HIPNOSIA erabili zuen. Hipnosiaren bidez, subliminalki eta modu inkontziente batean erregistratu ziren gertakizunak (kriptomnesiak) azaleratzen saiatu zen.

Gerora, kokaina ere erabili zuen kontzienteratzte prozesu horretarako. Baina azkenean, ikusi zuen, hitz eginez lor zitekeela inkontzientea argitaratzea. Azken metodo honi ASOZIAZIO LIBRE deritzo, ideia batetik beste batera salto eginez, inkontzientean dagoen arazorantz eta gaixotasunaren jatorrirantz hurbiltzera. Metodo honen bidez, nortasunaren lege eta zehatzaileak (normaltasuna, anormaltasuna) ikasi zituen eta horrela, nahasketa mentalak, aztertu, sendatu, ... Nortasuna ikasi eta aztertu ahal izateko, beharrezkoa da baldintza hauek betetzea:

- Gaixoaren eta terapeutaren arteko elkarrizketak konfiantzazkoa eta iraunkorra izan behar du. Konfiantzarekin hitz eginez gero, gaixoaren defentsak galdu edo biluztu egingo lirateke.
- Elkarrizketa leku intimo batean burutu behar zen, argi gutxikoa.
- Gaixoak etzanda egon behar du.
- Terapeuta eta gaixoaren artean ez da begiradarik egon behar, horregatik, terapeuta gaixoaren atzean kokatzen da.
- Gaixoak buruan dakarrena esan ahala, terapeutak materiala interpretatzen du eta portaera behatu.


Psikoanaliaren garaian, Darwin eta Lammarck-en EBOLUZIONISMOA zen zegoen korrante zientifikoa. Teoria honen arabera, energia ez da suntsitzen, eraldatu baizik eta pertsonok energiaren degradaziorako joera dugu, azkenean hil egiten garela. Teoria hau psikologiara eramaten badugu, esan dezakegu aparatu psikikoak energia sistema baten gisa diharduela, energia psikikoa energia fisiologiko bihurtu daitekeelako eta alderantziz, energia fisiologikoa energia psikiko. Adib: beldurra (energia psikikoa), energia fisiologiko diren dardaran, zurbiltasunean, beherakoa, ... bilaka daiteke. Teoria honekin erlazionatuta dago PATOLOGIA PSIKOSOMATI-KOA, hau da, arrazoi psikologikoa duen gaixotasuna.

Freudek sexualitateari garrantzi handia eman zion, energia psikikoa libidoarekin parekatu zuelarik. Esan zuen sexualitatea jaiotzen garenetik dugun zerbait dela eta teoria ebolutiboa jarraituz garatzen dela.

#### **3.1: TEORIA PSIKOANALITIKOAK:**

☞ **Hipotesi topografikoa = Freud-en 1. topika:**

-Hipotesi honen bitartez, elementuek psian duten kokapenaren azalpen bat ematen du. Freudek 3 elementu bereizi zituen: kontzientea, prekontzientea (subkontzientea) eta inkontzientea. Eta esan zuen, inkontzientetik prekontzientera pasatzea zaila zela eta psikoanalisiak horretan laguntzen duela. Eta behin, inkontzientetik prekontzientera pasata, kontzienteratzea erraza zela, horretarako oroimenezko esfortzua nahikoa zelarik, nahiz eta batzuetan pausu hori berez gertatu.



☞ **Hipotesi estrukturala = Freud-en 2. topika:**

-Hipotesi honen bitartez, psiak dituen 3 osagai bereizi zituen:

-**Bera:** Instintu primitiboa dugu (libidoa, hormonak), bitan banatua dagoena:

-*Erioso:* Bizitzarako grina, superbizitzarako instintua. Kontserbatzailea da eta 2 funtzio ditu:

-Especiearen superbizitza (funtzio sexuala).


-Indibiduoaren garapena (garapen funtzioa).

-*Thanatos:* Heriotzako instintua. Besteengandik atzetik joaten direne, (“*los que se dejan llevar*”), oso indartua dute instintu hau.

-**Nia:** Nortasunaren zentroa da, antolatzen eta koordinatzen duena. Niaren bide errealtatera egokitzen gara eta konturatzen gara beti ez dela posible gure beharrak asetzea. Hemen gure *defentsa mekanismoak* garatzen hasten dira.

-**Supernia:** Kontzientzi moralak da. Nia zuzentzen du. Supernia heziketak baldintzatzen du, gure *niaren ideala* (helburuak, idealak) sortuz, zeina gure helburua den. Nia superniagatik zenbat eta urrunago egon, frustrazioa orduan eta handiagoa izango da, horregatik, hoberena bata bestearengandik ahalik eta hurbilen egotea eta horretarako niaren ideal horretara heltzen saiatzen gara edo niaren ideala nira hurbiltzen saiatzen gara. Hurbiltasun horren bidez, frustrazioak eta hauek sortzen dituzten arazoak ekiditen dira, adib: niaren ideala modelo izatea bada, anorexian erortzea. *Self:* Norberak bere buruaz duen irudia.

-3 osagai edo indar hauek batuz, bektore bat osatzen da eta bektore onena supernia eta bera orekan egotea da. Supernia oso handia balitz zigorturik geundeke etengabe.



☞ **Hipotesi dimanikoa:**

-Gatazka inkontziente baten gaitasuna nortasunaren armonia apurtzeko eta nian sintoma neurotiko gisa azaltzeko. Hau da, inkontzienteak nortasunaren armonia desorekatzeko gaitasuna du eta horrek sintoma neurotikoak eragiten ditu nian.

#### ☞ **Hipotesi ekomonikoa:**

-Aparatu psikikoak funtziona dezan energia behar du: libidoa, energia sexuala.

#### ☞ **Hipotesi genetikoa:**

-Nortasunaren garapena garapen pulsional edo libidinalaren parekoa da.

### **4: ERREFLEXOLOGIA:**

Ikasitako erreflexuak aztertzen ditu. Darwinen teoria eboluzionistaren barnean mugitzen da korrante hau. Erreflexuei, aferentziei, eferentziei, estimuluei, erantzunei, ... garrantzia ematen die. Funtzionalismoa baino fisikoagoa da korrante hau.

### **5: GESTALT:**

Alemanian, XIX. mendearen azken aldera sortu zen korrantea. Formaren psikologia da, formetan oinarritzen den psikologia. Hau da, patroia eta egitura psikologikoak ezartzen ditu formari garrantzia emanez, gure pertzepzioa azpimarratuz. Legeak:

-Bat-bateko esperientzia, esperientzia primarioa: Irudiak lehenengo aldiz modu batean ikusten ditugu eta ondoren, irudi primario hori unitate osoen antolakuntzaren legeak jarraituz ordenatzen da:

-Objektuak kontextu edo fondo batetan ikusteko joera dugu.

-Konstantzia: Objektuak ezaugarri iraunkorrak izango balituzte bezala pertzibitzen ditugu.

-Taldekatzeko edo elkartzeko: Elementu sinpleak unitate bat bezala tratatzen ditugu. Taldekatzeko hori modu ezberdinetan burutu dezakegu:

-Antzekotasunagatik.

-Hurbiltasunagatik.

-Simetriagatik (gauzak erregular pertzibitzeko joera dugu).

-Uniformetasunagatik, jarraikortasunagatik.

-Itxieragatik.

-Primazioako legea: *“Osoa zati guztien batura baino gehiago da”*.

-Pregnantziako legea edo irudi oneko legea: Pertzepzioa automatikoa da, ikaskuntzarik gabea.

-Autonomiaren legea: Osotasuna beti dago, nahiz eta zatiak aldatu.

## **6: KONDUKTISMOA:**

Ez du introspektzioa (indibiduoaren kontzientziaren, pentsamenduaren, sentimenduen, ... azterketa) erabiltzen, metodo objektiboak baizik (esperimentazioa, behaketa). Metodo horien bidez, animalien portaera ikertzen du eta portaera horretan ikasketek, sari/zigorrek, estresak ... duten eragina kontuan hartzen du. Adib: Txakur bati txirrina jotzean janaria ematen diote; azkenean, txirrin hotsa entzutearekin soilik, urdail jariaketa hasten zitzaion txakurrari. Konduktibismoak kontuan hartzen du fenomeno baten aurrean dugun erreflexua eta zigorra eragiltzen du portaera bat murrizteko.

Helburu zientifikoak planteatu zituen korrante honek: deskripzioa, azalpena, predikzioa eta kontrola. Baldintzapena edo kondizionamendua ere aztertu zituen.

## **7: PSIKOLOGIA HUMANISTIKOA (HUMANISMOA):**

Korrante guztiz antropozentrikoa da. Indibidua da garrantzitsuena humanismoan eta gizakiaren esentziaren bila dabil beti. Humanismoa da gizaki gisa existitzean esan nahi duena. Fenomenologia: Pertsonak norbere ikuspuntu propio eta bereziarekin ikusten du mundua. Beraz, interpretazio subjektiboa da.

Humanismoak jendeari bere burua ulertzen eta garatzen lagunduz, giza bizitza handitu eta aberasten du.

Gizakien bizitza osotasunean ikasten du, funtzioetan banatzean ez bailuke informazio esanguratsurik emango.

Humanismoaren arabera, ikerkuntza psikologikoak giza arazoak aztertu beharko lituzke: erantzunkizuna, ekintzak, sormena, bakardadea, berezkotasuna...

Humanismoan ikerketa metodoak ez dira arazo garrantzitsuenak, guztiak baitira baliagarri, betiere gizakiaren ongizatea bermatzen badute. Beraz, oso heterodoxoak dira humanistikoak.

## **8: PSIKOLOGIA KOGNITIBOA (KOGNITIBISMOA):**

Kognizioa: Ingurunetik lortutako material sentisibea eraldatzen duen prozesua. Materiala kodifikatu, gorde eta geroko portaera adaptatibo gisa berreskuratzen da.

Kognitibismoa eduki mentaletan (oroimena, pentsamendua, emozioa,...) eta hauek portaeran duten eraginaren azterketan oinarritzen da. Eduki mental bakoitza kognizio bat da. Kognitibismoaren arabera, ingurunetik material sentisibea hartu eta hau eraldatuz, pertzepzio bilakatuz, gorde egiten da. Ondoren, geroko portaera adaptatibo gisa berreskuratzen da, gure oroimenek gure jokabidea baldintzatuko dutelarik.

Kognitibismoaren metodoa ezagupena eta aplikazio praktikoa dira, guztiz objektiboa. Beraz, norbere behaketa, introspektzioa eta auto-informeak bazterturik geratzen dira.